

# ohitura xelebreak



barrene 20. ikastunitatea

1B. maila

**ikaslearena**

## EGILEAK

Proiektuaren arduraduna: **Juxto Egaña** (HABEko Hizkuntzaren Didaktika arduraduna)  
Koordinatzaile didaktikoak: **Begoña Martinez** (HABEko teknikaria)  
**Sabin Zabala** (HABEko teknikaria)  
Parte-hartzaileak: **Jokin Nazabal** (Hernaniko Udal-euskaltegia)  
Errealizazio didaktikoa: **Xabier Elortza** (HABEko teknikaria)  
**Alex Mungia** (HABEko teknikaria)  
**Agurtzane Maiz** (HABEko teknikaria)

(c) HABE 2003

HABE erakundeak eskerrak ematen dizkio Hernaniko udal-euskaltegjari materialgintza-proiektu honetan parte hartzerakoan agertu duen borondateagatik.

Halaber, esker ona luzatu nahi die euskalduntze-alfabetatzegintzan diharduten euskaltegi guztiei, beren esperientzia eta ekarpena baliagarri izan direlako.

Diseinua, maketazioa eta marrazkiak: **Josexo Sastre, Igor Astigarraga eta Iñaki Gozalo**

Gure esker ona ondoren aipatzen direnei, hainbat material eta ideia hartzeko baimena eman digutelako:

Cano, H. *Maniatiko allena*. Euskaldunon Egunkaria, 00-09-10.

*Obsesioak*. Consumer, 26. zenbakia.

*As good as it gets* (zuz. James L. Brooks)

Saizarbitoria, R. 1999. *Bihotz bi*. Donostia: Erein.

*Txukun*. "Etxe apainketa" gehigarria. Euskaldunon Egunkaria.

# ohitura : xelebreak

barrene 20. ikastunitatea

1B maila

Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Kurrikulua

ikaslearena



## AURKIBIDEA

### 1. Sarrera

- |                               |   |
|-------------------------------|---|
| 1. Lan-egitasmoa              | 6 |
| 2. Ikastunitatearen ibilbidea | 7 |

### 2. Atazak

- |                                     |    |
|-------------------------------------|----|
| <b>A Ataza:</b> Maniatiko alaena!   | 8  |
| <b>B Ataza:</b> Maniaz mania        | 14 |
| <b>C Ataza:</b> Kamera ezkutua      | 19 |
| <b>D Ataza:</b> Desordena ordenatua | 26 |
| <b>E Ataza:</b> Biografia maniakoa  | 30 |

### 3. Autoebaluazio-orria

### 4. Eranskinak

- |                        |    |
|------------------------|----|
| 1. Ikaskidearen maniak | 35 |
|------------------------|----|

## 1.

### LAN-EGITASMOA

Ikastunitate honetan eguneroko maniak, ohiturak... ia-ia konturatu gabe egiten ditugun gauzatxo horiek izango ditugu hizpide. Horien bidez, elkar hobeto ezagutzeko aukera izango dugu, eta horrekin guztiarekin eta ikaskideei buruzko beste datu batzuekin ikaskide baten biografia maniakoa idatziko duzue.

## 2. IKASTUNITATEAREN IBILBIDEA



## ATAZA: MANIATIKO ALAENA!

1


- Irakur ezazu, gainera, Harkaitz Canok idatzitako artikulua hau, ea asmatzen duzun zein den pertsona ezkutua. Zer dakizu berari buruz?



## MANIATIKO ALLENA

Brooklyn-eko eskolako aldizkarian idatzi zituen \_\_\_\_\_ lehen txistekak, eta ia konturatu ere egin gabe, telebista eta irratietako umoristekin hasi zen lanean. New Yorkeko hainbat klubetako hormetan irakur daiteke bere izena, bertan beren saioak inprobisatu zituzten artisten zerrendetan. Nire abururako, \_\_\_\_\_ da Cioran-en ondoren dagoen aforismo egilerik burutsuenetako bat. Mia Farrow-en esanei kasu eginez gero, bere gorputzeko atal bakoitzarentzat sendagile bat duen zuzendari honi zor dizkiogu «Zoriontsu izatea bizirik egotea da» edo «Ez diot beldurrik heriotzari, baina xinpleki, nirea gertatzen denean ez nuke bertan egon nahi» bezalako perlatuak. Hipokondriaren erregea maniaz betetako gizona da: filmaren amaierako kreditu titulua beti letra tipo berarekin egitea da horietako bat. Nekez sartuko dizu film batean *swing*-aren urrezko garaiaz geroztiko kanturik. Horiexek dira, hain zuzen, astelehenero bere bandarekin New Yorkeko hotel batean jotzen dituenak. Bere arerioek azken filmetan ideia errepikakorrak erabiltzea leporatu diote, eta berak onartu egin zuen hori prentsaurreko batean: «Nire talentua agortzen ari da», esan zuen. Adopziozko alabarekin sortu maitasun harremanak soka luzea ekarri zuen bere garaian, eta arrazista izatea ere leporatu diote behin baino gehiagotan: \_\_\_\_\_ alenaren filmak ikusita, edonork esango luke Manhattanen ez dela beltzik bizi. Kontuak kontu, beren *cachet*-ari uko egiten diote izarrek berarekin lan egitearren. Norbait damutu ere egingo zen, akaso: gogoratu behin Robin Williams propio desenfokatuta atera zuela film osoan. Veneziako Mostran aurkeztu berri du *Small Time Crooks* lana. Bere film gehienak bezala, Europako ikusleari esker izango da errentagarri. Argumentua, honokoa: lapurreta egiteko tunela zulatzen ari direlarik, estalki gisara gailera denda bat jartzen dute zulatzen ari diren lekuan. Berehala, ordea, halako arrakasta erdietsiko du euren negozioak, lapurretatik baino diru gehiago eskuratuko baitute negoziotik. Santa Teresaren aipuarekin laburbildu du \_\_\_\_\_ filmaren mamia: malko gehiago isurtzen da betetzen diren erreguengatik, betetzen ez diren haiengatik baino.

- Berrir irakurriko duzu testua, baina, oraingoan, informazio zehatzaren bila: zine-zuzendari horren ohitura xelebreak eta bitxikeriak aurkitzen eta beheko diagrama betetzen saiatuko zara.



- Aurkitu eta azpimarratu testuan H. Canok Woody Allen-i buruzko iritzia emateko erabiltzen dituen esapideak. Ea zuek zerrenda hori osatzen duzuen!
- Ondorengo testuan, berriz, hizkuntz zati horien orde, gutxienez, bi modu desberdin jarri behar dituzue hutsune bakoitzean eta, egoki irudituz gero, esaldia alda dezakezue.



### MANIATIKO ALLENA

Brooklyngo eskolako aldizkarian idatzi zituen Woody Allenek lehen txistekak, eta ia konturatu ere egin gabe, telebis-

ta eta irrati-tako umoristekin hasi zen lanean. New Yorkeko hainbat klubetako hormetan irakur daiteke bere izena, bertan beren saioak inprobisatu zituzten artisten zerrendetan. \_\_\_\_\_ Woody Allen da Cioranen ondoren dagoen aforismo egilerik burutsuenetako bat. Mia Farrow \_\_\_\_\_ bere gorputzeko atal bakoitzarentzat sendagile bat duen zuzendari honi zor dizkiogu «Zoriontsu izatea bizirik egotea da» edo «Ez diot beldurrik heriotzari, baina ximpleki, nirea gertatzen denean ez nuke bertan egon nahi» bezalako perlat. Hipokondriaren erregea maniaz betetako gizona da: filmaren amaierako kreditu tituluak beti letra tipo berarekin egitea da horietako bat. Nekez sartuko dizu film batean *swing*-aren urrezko garaiaz geroztiko kanturik. Horiexek dira hain zuzen, astelehenero bere bandarekin New Yorkeko hotel batean jotzen dituenak.

\_\_\_\_\_, eta berak onartu egin zuen hori prentsaurreko batean: «Nire talentua agortzen ari da», esan zuen. Adopziozko alabarekin sortu maitasun harremanak soka luzea ekarri zuen bere garaian, eta arrazista izatea ere leporatu diote behin baino gehiagotan: Allen alenaren filmak ikusita, edonork esango luke Manhattanen ez dela beltzik bizi. Kontuak kontu, beren *cachet*-ari uko egiten diote izarrek berarekin lan egitearren. Norbait damutu ere egingo zen, akaso: gogoratu behin Robin Williams propio desenfokatuta atera zuela film osoan.

Veneziako Mostran aurkeztu berri du *Small Time Crooks* lana. Bere film gehienak bezala, Europako ikusleari esker izango da errentagarri. Argumentua, honokoa: lapurreta egiteko tunela zulatzen ari direlarik, estalki gisara gailera denda bat jartzen dute zulatzen ari diren lekuan. Berehala, ordea, halako arrakasta erdietsiko du euren negozioak, lapurretatik baino diru gehiago eskuratuko baitute negozioziki.

Santa Teresaren aipuarekin laburbildu du Allenek filmaren mamia: malko gehiago isurtzen da betetzen diren erreguengatik, betetzen ez diren haiengatik baino.




2

- Woody Allen izan dugu aipagai, baina pertsona ospetsu asko eta asko omen dira maniatiko samarrak. Hedabideek, behintzat, behin baino gehiagotan ematen digute nabarmenkeria horien berri.
- Ikus ezazue bideo-pasartea eta jaso bertatik hainbat aktorek dituzten ohitura xebleak.
- Ezagutzen al duzue aktore horien ohitura xeble gehiago? Horienez gain, seguru ezagutzen dituzuela beste ospetsu batzuen bitxikeriak (aktoreak, idazleak, artistak, abeslariak, kirolariak, ...). Aipa itzazue.
- Begira iezaiozue arbeleko zerrendari eta esan zure taldetxokoei pertsona horiei buruz dakizun guztia: bere biztzari buruz eta oraindik aipatu ez diren beste ohitura xeble batzuei buruz.
- Idatz ezazue lauki honetan bakoitzari buruz taldean adierazi dituzuen zertzeladarik interesgarrienak..



- Aukera ezazue bion artean goiko ospetsu horietako bat. Txandan-txandan ospetsuei buruz hitz egin beharko duzue, goiko datuak erabiliz. Jaso hautatu duzuen ospetsuari buruz esaten duten guztia.
- Informazioa jasoko zenuten, baina nahasi samar, agian. Idazten hasi aurretik, bada, ordenatu egin behar duzue. Horretarako Woody Allen-ekin erabili dugun mapa semantikoa erabiliko dugu. Baina alda dezakezue nahi izanez gero; hots, horko puntu batzuk kendu, beste batzuk erantsi...



- Informazioa antolatu ondoren, Woody Allen-en idazkia eredu, idatz ezazue zuen ospetsuaren biografia maniakoa.
- Altxa eta irakurri besteek idatzitakoak.



# B

## ATAZA: MANIAZ MANIA

1

- Defini itzazue honako bi hitz hauek. Horretarako, ondoko hitzak eta esapideak erabil ditzakezue.

- Mania:

---

---

---

---

---

---

---

---

- Obsesioa:

---

---

---

---

---

---

---

---



gaitza                      egunero

noizean behin      ohitura

anekdotak              erritoak

ururi      segurtasun falta

sufrimendua

mendekotasuna

behin eta berriz

kontrolaezina

zentzugabea

saihestezina

lasaitu

jokaera



- Irakurri ikaskideei zuen definizioak. Zein da bi horien artean dagoen desberdintasuna?
- Irakurri hurrengo testua, eta bilatu kontzeptu horien definizioak.

## Obsesioak

### Eguneroko ogi garratza

Nork ez ditu noizbait izan behin eta berriz errepikatzen zaizkion ideiak edo kezak eta horietatik aldentzeko zailtasuna? Ez dira gutxi etengabe zalantza izaten dutenak: atea ondo itxi ote duten, gasa kendu ote duten, argia itzali ote duten... eta bai, egin dutela baieztatzen dute behin eta berriz. Beste zenbaitek mania jakin batzuekin erritoz betetzen du bizitza: sukaldeko baldosak edo etxerako eskailera-mailak zenbatu, lurreko marrak ez zapaltzea, autoen matrikula-zenbakiak gogoan hartzea, bilera eta jatorduetan beti leku berean jartzea, poltsikoan ezertarako balio ez duen objekturen bat eramatea... Baina horiek anekdotak besterik ez dira, benetako arazo psikologiko bihur daitezkeen ohituren agerpen hutsak.

Guztiok ditugu, maniatzat har daitezkeen arren, normaltzat jotzen ditugun ohiturak. Baina pentsamendu edo mania horiek sufriarazten digutenean, obsesiozko aldaketa konpulsiboen aurrean gaude. Obsesioak behin eta berriz errepikatzen diren pentsamenduak dira, norberak hala nahi ez arren, eta pertsonak ezin ditu kontrolatu.

Obsesiozko pentsamenduak jokaerako keinu ia automatiko izatera iristen badira, gorputz-dardara, ekintza edo mania bihurtzen dira eta pertsonak errepikatu egin behar izaten ditu, ongi -edo lasai, behintzat- sentituko bada. Konturatzen da zein zentzugabe eta irrazionalak diren, baina ezin ditu saihestu. Gorputz-dardarak, elkarrekin lotu eta katea osatzen dutenean, erritual patologiko bihurtzen dira.

- Bat al datoz zuek emandako definizioekin? Artikulu berean katalogoa ere egiten dute.

la beti honako hauek izaten dira tartean:

- **Garbitasuna.** Obsesio hau dutenei izua eragiten die ukitzen dutenaz kutsatzeak eta behin eta berriz garbitzen dituzte eskuak. Jendea agurtzerakoan eskua emateari eta bestelako edozein harreman fisikori uko egiten diote. Altzari batean hauts izpi bat ikustea ikaragarria iruditzen zaie.
- **Ordena.** Ezin dute jasan ezer bere lekutik kanpo ikusterik, aldi baterako izanda ere. Bere lekuan egonda ere, simetria zainduta eta mahaiaren angeluen arabera egon beharko du. Ingurukoek euren ordenaren arau konpulsiboak ez betetzea ere ezin dute jasan eta etxean bizi diren pertsonak -helduak izan edo ez-zorrotz bete beharko dituzte mania hau duen pertsonak ezarritako ordena eta garbitasunari buruzko arauak.
- **Portaera zalantzatiak.** Adibidez, atea itxi aurretik behin eta berriz begiratu dute etxea nola dagoen. Eta, itxi ondoren ere, berriro sartuko dira. Edozein erabakiren aurrean, garrantzirik gabea izan arren, hilabeteetan zehar pentsatuko dute. Eta erabakia hartu eta gero, zalantzan izango dira erabaki zuzena izan ote zen. Eta etengabe gogoeta egingo dute ongi egin ote duten edo beste norbaiti galdetuko diote.




- Hurrengo bideo-pasartean hainbat eszena ikusiko dituzue. Sailka itzazue testuko sailkapenaren arabera.

Garbitasuna	Ordena	Portaera zalantzatiak

- Zure ustez, zer du gure pertsonaiak, mania ala obsesioa?
- Hurrengo pasartea entzun eta saiatu zer esaten duen ulertzen.
- Irakasleak, orain, pasarte hori irakurriko dizue berriro. Entzun eta jaso ahal duzun guztia, gero testua berridatzi beharko baituzu.
- Elkartu zure ikaskidearekin. Alderatu egindakoa eta saiatu testua berreraikitzen.
- Hartu transkribapena eta alderatu zuen testuarekin. Ondoren, izan dituzuen zailtasunak adieraziko dituzue denon artean.
- Aldera ezazue transkripzioko definizioa lehen zuek idatzitakoekin. Zeintzuk dira alderik nagusienak?
- Ikusitakoaren arabera, zerbait aldatuko al zenuke idatzi dituzun definizioetan? Hala balitz, egin aldaketak.

## 2

- Arestiko irratsaioaren bigarren zatia entzungo duzue. Bertan mania batzuk aipatzen dituzte. Jaso itzazu.
- Orain, sailka itzazu goiko mania horiek honako irizpide hauen arabera. Beste kategoriaren bat erants dezakezu, egoki irudituz gero.



- Zuek ere izango dituzue maniak, ezta? Idatz itzazu, bai zuk zeuk maniak direla iruditzen zaizkizunak, bai, zuri ez iruditu arren, besteek zure maniak direla uste dutenak. Horretarako, arestikoaren antzeko laukia erabil dezakezu. Ez izan beldurrik kategoria gehiago eransteko.



- Solasean aritu behar duzue ikaskideen artean, irratikoek bezalaxe. Presta ezazue pixka batean. Horretarako, erabili ondorengo mapa semantikoa. Puntu gehiago ere erants ditzakezue.



- Mapa osatu eta gero, hitz egin zure ikaskideekin.
- Bakoitzak bere ikaskidearen manien aurkezpena egin bitartean, jaso zeuri egokitu zaizunaren berri 1. eranskinean duzun fitxan.



## ATAZA: KAMERA EZKUTUA



1

- Kamera ezkutua ardatz duten programa asko egin dira telebistan. Bat baino gehiago gogoratuko duzu. Hitz egin ezazue programa horiei buruz eta bertan ikusi izan dituzun hainbat bitxikeriaz.
- Begira iezaiozu ondoko letra zopa honi. Bertan sentrazio txarren berri emateko erabil daitezkeen bederatzi hitz dituzu. Aurki itzazu. Hitzak goitik behera, ezkerretik eskuinera edo diagonalean egon daitezke.

S	F	C	J	F	L	H	A	S	R	A	S	H	S
I	L	J	N	S	G	O	R	A	G	A	L	E	A
T	L	C	J	K	J	Z	T	O	S	O	A	Z	E
R	E	O	K	X	U	K	A	X	T	U	C	B	S
E	R	R	T	X	A	I	D	S	A	O	T	F	U
D	N	D	T	S	E	A	E	K	U	G	Z	A	P
S	E	R	R	I	A	G	P	E	X	T	O	L	N
K	G	B	A	F	K	G	H	I	G	U	I	N	A
N	A	R	B	Z	F	L	O	I	A	G	J	P	O
A	T	G	O	K	I	R	H	R	P	E	R	T	X
Z	U	H	O	T	Z	I	K	A	R	A	E	R	R
K	A	R	A	M	O	R	R	A	Z	I	O	A	G
A	Z	K	O	N	A	R	R	A	I	K	T	A	G
O	I	L	O	I	P	U	R	D	I	A	P	U	R


- Hurrengo bideo-pasartean hainbat esketx ikusiko dituzu, telebistako programa batzuetatik ateratakoak. Goiko hitz horiek erabil ditzakezu esketxek sortuko dizkizuten sentsazioak adierazteko. Esketxak ikusi ahala, adieraz ezazu ondorengo aipamen bakoitzaren ondoan, egokiak iruditzen zaizkizun hitzak. Errepikatu egin ditzakezu edo beste batzuk erabili.

- Gizonak atzamarra sudurrean sartzea:.....
- Emakumeak lankide baten zapatila usaintzea:.....
- Sukaldariak pizzaren gainean doministikua egitea:.....
- Sukaldariak janariari txistua botatzea:.....
- Sukaldariak janariaren gainean zigarro-muturra itzaltzea:.....
- Bulegariak sofaren gainean pixa egitea:.....
- Bulegariak bere lankidea eserita egondako aulkia usaintzea:.....
- Bulegariak lanean ari dela alkohola edatea:.....
- Langileak igogailuaren paretan bere nagusiaren aurka idaztea:.....
- Emakumeak bere bularrak eta beheko parteak fotokopiatzea:.....





- Jarri dituzun hitz horiek baliatuz, esketx hauei buruz jardungo dugu.
- Orain zu izango zara kamera ezkutua. Zure inguruan ikusi, entzun, ... dituzun ohitura bitxi horien berri emango diogu elkarri. Ohitura horiek gogoratzeko, ondorengo puntuak jarrai ditzakezu.



2

- Irakur ezazu hurrengo pasartea. Idazleak ere buruko kamera ezkutua jarriko du martxan. Pertsonaiek bikotea osatzen dute, berehala konturatuko zarete. Baina zer-nolako harremana daukate elkarren artean? Aukeratu hauetako hitzen bat:

### MAITAKORRA    HOTZA    GARTSUA    GORROTOZKOA


Atea itxita zeukan. Haren hots gordeak entzuten nituen atearen bestaldetik, eta hots bakoitzarekin niretzat jadanik sekretuak bilakatu ziren zeinu esanguratsuak imajina nitzakeen. Banekien felpazko zerrenda horia jarria izango zuela buruan, aurpegian krema garbitzailea ematerakoan ilerik ez bustitzeko. Bekainetan jenjibre oiloa emango zuen ontzi txiki batetik, eta gero gorputz osoa esne hidratatzailez igurtziko. Hortzak garbitzen zituen lehendabizi. Sarritan, artean hortzen eskuila ahoan zuela hasten zen gorputzean krema ematen, zangoetan bereziki, horretarako oina bainera ertzean bermatuz. Gozatuz egiten zuen lan hori, patxadatsu, ziurrenik azalaren leuntasunaz harro zegoelako, eta batzuetan esnearen potoa luzatu eta bizkarrean emateko eskatzen zidan, zein azal leuna zuen esan niezaion.

Gehienetan, artean hortzetako eskuila ahoan zuela, etxean zehar ibili ohi zen biluzik, argi ahaztuak itzaltzeko edo sukaldean azken ontziren bat jasotzeko, eta besoak gurutzatzen zituen bularrean, lotsatzeko planta eginez, pasilloan nirekin gurutzatzen bazen. “Zeri begiratzen diozu, lizun horrek” esaten zidan, edo alderantziz, esku bat altxatuz eta bestea aldakan kokatuz, zeinu kilikagarri baten karikatura egiten zuen. Gero, azkenik, pijama jantzi eta eskuetako krema ematen zuen. Tapakiak hatz erakusle eta lodiarekin pintza eginez hartuko zituen ez koipetzearren, kokots azpiraino estali eta, bi besoak ohea ez nahasteko arreta handiarekin atereaz, eskuak igurzten jarraituko zuen artean une luze batez. Normalean, baketsu eta zoriontsu zirudien begiak ixten zitueanean, jakitun, une batean neke gozoaren eraginez loak hartuko zuela, eta narotasun hark edertu egiten zuen. Hori iruditzen zitzaidan albotik perfilez ikusten nuenean, erreginen hilobietan izan ohi diren marmolezko estatua etzan bat zirudiela.

Berehala hartzen zuen lo. Oheratutakoan ez zuen irakurtzen, ez irratirik edo musikarik entzuten; berehala hartzen zuen lo, eta ahoa itxita egiten zuen, arnas hots pausatu eta leun batekin.

- Azaldu denen artean zein hitz aukeratu duzuen eta arrazoitu testuaren bidez.

- Hurrengo irudian duzue emakumezko baten gorputza. Bertatik hainbat gezi ateratzen dira. Testua polikiago irakurri, azpimarratu bertan azaltzen diren gorputz-atalak eta gezi horietan jarri.



- Irakurri berriro, eta jarri gorputz atalen ondoan emakume horrek gorputz atal horietan zer egiten duen.
- Hitz egin ezazue honako puntu hauei buruz:
  - Non dago kontalaria?
  - Ikusten al du zertan ari den emakumea?
  - Orduan, nola konta dezake hori guztia?
- Beraz, kontalaria eskarmentuaz baliatzen da hori guztia kontatzeko. Eta kontatu bi modutan egiten du. Zein alde dago aditz hauen artean? Zergatik erabiltzen du bata eta bestea?

**A.** ... jarria izango zuela  
... emango zuen

**B.** ... garbitzen zituen  
... egiten zuen  
... hasten zen  
... ibili ohi zen

## 3

- Pentsa ezazu pixka batean zure ingurukoengan, berdin da lantokikoak, etxeakoak... eta aukeratu bat, ondo samar ezagutzen duzuna. Demagun kamara ezkutua jartzen diozula, bere ohitura, mania ... ezkutua ikusteko, gure kontalariak egin duen bezalaxe. Gero, horiekint testutxo bat idatzi beharko duzu, irakurri berri duguna eredu. Beraz, egunaren zein une kontatuko duzun aukeratu behar duzu, kontalariak ohera joan aurretikoa aukeratu duen bezalaxe.



- Orain, ondoko taulan, testua osatzeko osagaiak aukeratu behar dituzu, pausoz pauso, ordena kronologikoan, mania edo ohitura horiek islatzeko baliagarri. Gure kontalariak egin duen bezala, lotu gorputz-atalak hainbat objektu eta lekurekin. Ez duzu zertan atal guztiak bete.

OHITURAK / MANIAK	OBJEKTUAK	GORPUTZ ATALAK	LEKUAK

- Pentsatutakoa testura ekartzeko orduan kontalariak, zeuk kasu honetan, zein ikuspegi hartu du? Hotza, maitekorra...? Hori islatuko duten hiru esaldi idatzi, gero testuan txertatzeko.

1. \_\_\_\_\_
2. \_\_\_\_\_
3. \_\_\_\_\_

- Azkenik, aditza. Arestian ikusi ditugunetatik zein forma erabiliko dituzu? Bata ala bestea? Edo nahasian?
- Dena ondo pentsatuta baldin baduzu, idatzi testua.
- Irakur itzazue elkarren testuak, eta erreparatu ondorengo alderdiei:
  1. Zein ikuspegi hartu du kontalariak? Ondo islatuta al dago esaldi horien bidez?
  2. Aditza. Zein forma erabili ditu? Ondo erabili al ditu?

## ATAZA: DESORDENA ORDENATUA



1

- Zuen gelako armairua, argazkia atera diozuen, nolakoa den azaldu behar diozue ikaskideari, hitzez. Ikaskideak berea azaltzen dizun bitartean, berriz, marraztu planoak. Ez ahaztu, armairua hutsik dagoenean nolakoa den: banaketa, tamaina, forma... Azalpena ez baduzue oso ondo ulertzen, galdetu, baina ezin duzue argazkia ikusi.
- Marraztu duzue, ezta! Bada, orain erakutsi zuen planoak ikaskideari eta egin beharreko aldaketak egin, planoak ondo marrazteko.
- Planoak eskuan dituzue, zuzenduta. Orain bai, orain azaldu ikaskideari arropa nola daukuzuen banatuta bertan. Azalpena ez baduzue ondo ulertzen, eskatu argibideak, baina argazkiari begiratu gabe. Hona hemen, azalpena egiteko jarrai dezakezuen gida:
  - Gehien erabiltzen duen arropa
  - Noizean behin erabiltzen duen arropa
  - Zapatak
  - Jantzi txikiak
  - Urtaroz kanpoko arropak
- Amaitu baldin baduzue alderatu planoak eta argazkia.
- Hitz batzuk dituzue segidan. Multzo horretan, alde batetik, armairuaren zatiak dituzu eta, beste aldean, arropen izenak. Bana itzazue bi multzotan.

apalak  
soinekoak  
gainaldea

jertsea  
berokia  
tiradera

sailak  
jaka gona  
pijama kaxak

barruko arropa  
nikia  
behealdea

erdigunea  
alkandora  
zapata

2

- Irakur ezazu ondorengo artikulua. Ikusiko duzun moduan, ordenaren kontua ez da txantxetako gauza

## Txukun

**B**aliagarriak izan daitezkeen trikimailu batzuk bildu ditugu etxea ordenatu eta antolatzeko

Ordenaren ardatza zera da: ahalik eta gauza gehien ezkutuan gorde ahal izatea, era praktikoko batean, noski. Armairu barrua ongi antolatzea garrantzitsua da. Izan ere, denbora eta espazioa aurrezteko modua da.

Arropak nola gorde behar diren pentsatzea komeni da. Normalean logeletako armairuetan gordetzen ditu arropak jendeak. Halakoe-tan, armairuak eta apalak zenbait sailetan banatzea komeni da.

Jantzi batzuk beste batzuk baino gehiago erabiltzen ditugu. Arropa horiek zeintzuk diren zehaztea gomendagarria da. Hala, armairuaren erdigunean, maiz jantziko ditugun soinekoak gordeko ditugu. Horiek ere, arropa-motaren arabera sailkatuko ditugu: berokiak eta jakak alde batean; gonak eta prakak bestean; alkandorak beste batean.

Zapatentzako tokirik aproposena armairu-

ruen behealdea izaten da. Jertseak, alkandorak eta nikiak, berriz, tiraderen gainaldean. Tiradera txikiak barruko arropa, pijamak edo halakoak gordetzeko erabiltzea komeni da.

Bestalde, urtaroz kanpo dauden arropak kaxetan gorde daitezke, eta armairuetako tokirik altuenetan jarri (libreago dugun beste gela batean, ganbaran zein garajejan). Kaxei txarteltxo bat zintzilikatzea komeni da; barruan dauden arropen berri emango digun txartela. Hala eginez gero, erraz jakingo dugu non dagoen bilatzen ari garen hori.

Etxe handietan jantzi gelak ere izaten dira. Horrelakoetan, gela sailka antolatzea komeni da. Batetik, pertsona bakoitzari dagokion aldagela zatia ongi mugatu beharra dago. Bestetik, udako eta neguko saila banatzea komeni da.

Zapatak gordetzeko lekurik ez duten armairuak badira. Haien osagarririk egokienak zapata gordetzeko tiradera bereziak dira. Leku gutxi behar dute; nonahi jar daitezke, eta zapata asko sartzen dira normalean.

- Irakur ezazu berriz artikulua, baina, oraingoan, erreparatu zure ikaskidearen armairuaren eta hemen proposatzen duten banaketaren arteko aldeei. Horretarako, begiratu marrazu duzun planoari.
- Ondoren ezberdintasun horien berri emango diezu gainontzekoei. Gainera, erne egon zure ikaskideak hitz egiten ari direnean, aurreko atazako ikaskideari buruzko datuak jaso behar dituzu eta.
- Testuan hitz hauek ere azaldu zaizkigu. Emango al zenuke horietako bakoitzaren aurkakoa?

**Erdigunean:**

**Behealdea:**

**Tiraderen gainaldean:**

**Barruan:**

- Ondoren, zerrenda itzazu horrelako hitz gehiago.
- Hartu ondokoaren zerrenda eta egin bikoteak zeurean aurkakoak aurkituta. Bakarren bat bikoterik gabe gelditzen bazaizu, jarri zeuk aurkakoa.



3

- Hitz egin ezazue ondoko galdera hauei buruz:
  1. Zer da ordenatua izatea zuretzat?
  2. Garrantzitsua al da ordenatua izatea zuretzat?
  3. Zu ordenatua al zara? Eman esaldi batean zure erantzuna frogatuko duten lauzpabost adibide.
- Jaso paper batean, labur-labur, taldean adierazi diren iritzi nagusiak, geroago gogoratu ahal izateko.
- Entzun ezazue hurrengo bideo-pasarte eta jaso ondoko koadroan gaiari buruz jendeak dituen iritzi nagusiak.



### Iritziak

- Aldera itzazue jaso dituzuen iritziak.
- Jarraian, alderatu irratiko iritziak zuek ataza honen hasieran azaldu dituzuenekin. Zertan zatozte bat? Zertan ez? Bide batez, aipatu itzazue ordena dela eta arlo ezberdinetan dituzuen maniak: etxean, lantokian...
- Nolakoa da armairua deskribatu dizun ikaskidea? Zertan da ordenatua? Zertan ez? Esan dizu nola daukan antolatuta armairua. Ondoren, entzun duzu ordena dela eta zein ohitura dauzkan arlo desberdinetan. Horrekin guztiarekin idatzi ondoko lerroetan zure lagunaren ordenari buruz duzun irudipena: ordenatua den, ordenatuegia den, ez den ordenatua... Idatzi labur eta jarri adibide pare bat zure irudipen hori indartzeko.

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---



## ATAZA: BIOGRAFIA MANIAKOA



Ikaskideen izaerari buruz datu batzuk jaso dituzue unitatean zehar. Azken ataza honetan, ikaskide baten biografia idatzi beharko duzu, baina biografia berezia izango da, biografia maniakoa. Horretarako, bere bizitzako datuak ere tartekatu behar dituzu. Harkaitz Canok Woody Allen-i buruz idatzitakoa izango duzu eredu.




1

- Ikaskide baten biografia maniakoa idatzi behar duzu. Hainbat gauza aipatu ditugu unitatean zehar: maniak, ohiturak... eta baita jaso ere. Egokitu zaizun ikaskidearen datuak ere norbaitek izango ditu. Aurki ezazu eta jaso datu horiek. Hona hemen jaso behar dituzun datuak laburbilduta:

1. B atazan ikaskide baten maniak jaso dituzue. Bilatu nork dauzkan zuri egokitu zaizun ikaskidearenak eta jaso.
2. C atazan kamera ezkutuaren teknika erabili duzue. Honen bidez ezagutu duzue ikaskide batek beste baten maniekiko zein jarrera duen. Aurkitu nork egin duen egokitu zaizun ikaskideari buruzko idazkia eta irakurri.
3. Ordenatua al da egokitu zaizun ikaskidea? Jaso D atazan ikaskideren batek idatzita daukana horri buruz.

- Dena den, horiek bere izaerari buruzko datuak dira. Biografia idazteko, bere bizitzakoak ere beharko dituzu. Horiek lortzeko presta ezazu galdetegia. Gida gisa, hona hemen puntu batzuk.




- Egin elkarrizketak.



2

- Informazioa jaso duzu. Orain antolatu egin behar duzu. Biografia arloka banatzea komeni zaizu. Horretarako, hurrengo irudian dituzu aukera ditzakezun hainbat arlo. Aukeratu egokitu zaizun ikasleari buruz duzun informazioaren arabera.



- Ondoren, arlo horietan bi gauza txertatu behar dituzu:
  - Ikasleari buruz jaso dituzun datuak: dituen maniak, ohiturak, besteen mania eta ohiturekiko duen jarrera...
  - Aurreko puntuko informazioa eskuan, ikaskideaz duzun iritzia. Horretarako, Woody Allen-i buruz idatzikoa har dezakezu eredu.

3

- Tira, idazlana ondo antolatuta daukazu. Idaztea besterik ez zaizu falta.
- Idatzi ondoren, emaiozu gainbegiratu bat, eta beharrik ikusiz gero, berridatz ezazu.
- Irakur ezazu testua ozen. Baina, erne! Ez esan ikaskidearen izena, besteek asmatu behar dute eta.

# AUTOEBALUAZIO-ORRIA

## 1. NORBERAREN GOGOETA:

- Birpasa ezazu unitatea. Zein izan da oso erraz egin duzun ataza? Esan zergatik uste duzun hain erraz egin duzula:

Ataza: \_\_\_\_\_

Arrazoiak:

---



---



---

- Eta zein izan da gehien kosta zaizuna edo ondo egitea lortu ez duzuna? Eman arrazoiak eta pentsatu zer egin dezakezun arlo hori hobetzeko.

Ataza: \_\_\_\_\_

Arrazoiak:

---



---



---

Zer egin dezaket hobetzeko:

---



---



---



---

- Unitate honetan irakasleak hainbat aholku emango zizkizun. Jaso itzazu hemen gogoan dituzunak:

---



---



---



---



---

## 2. IKASITAKOA:

- Sentsazioa adierazteko hitzak. Saiatu batzuk gogoratzek. Ea zenbat gogoratzek dituzun!

---

---

---

---

- Eman ezazu bi hitz hauen definizioa.

MANIA:

---

---

---

OBSESIOA:

---

---

---

- ETORRI ZEN / ETORRIKO ZEN. Hona bi aditz. Asma ezazu testuinguru egokia eta idatzi paragrafo labur bana aditz horiek edo beste batzuk (ekarri, ibili, esan..) egoki erabiltzeko.

ETORRI ZEN:

---

---

---

ETORRIKO ZEN:

---

---

---

## I. eranskina

## IKASKIDEAREN MANIAK

## IKASKIDEEN DATUAK

## MANIAK:

Ikaskidearen izena: \_\_\_\_\_

## Manien zerrenda:

1. \_\_\_\_\_
2. \_\_\_\_\_
3. \_\_\_\_\_
4. \_\_\_\_\_
5. \_\_\_\_\_

## EGOERA DESEROSO ETA NAZKAGARRIAK

Ikaskidearen izena: \_\_\_\_\_

## Egoera:

---



---



---



---



---

## ORDENATUA AL DA?

Ikaskidearen izena: \_\_\_\_\_

BAI / EZ

Zergatik?: \_\_\_\_\_

Adibidea: \_\_\_\_\_

---



---

# OHARRAK

A large orange rectangular area containing 25 horizontal dotted lines for writing. The lines are evenly spaced and extend across the width of the orange area, providing a guide for handwriting practice.







# HADE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

Erakunde autonomiaduna  
Organismo Autónomo del



Hernaniko Udal-euskaltegia